BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

2325

EBAZPENA, 2018ko apirilaren 18koa, Kontsumobideko zuzendariaren 2017ko ekainaren 14ko Ebazpena aldatzen duena. Ebazpen horren bidez, kontsumitzaileen elkarteei diru-laguntzak ematen zaizkie, 2017ko ekitaldian funtzionamenduari, laguntza juridikoari eta kontsumo-proiektua eta berrikuntza teknologikoko proiektuak gauzatzeari dagozkien gastuak ordaindu ditzaten.

Lehenengoa.– Kontsumobideko zuzendariaren 2016ko abenduaren 16ko Ebazpenaren bidez, kontsumitzaileen elkarteei diru-laguntzak emateko deialdia argitaratu zen, 2017ko ekitaldian funtzionamenduko, laguntza juridikoko eta kontsumo-proiektuak eta berrikuntza teknologikoko proiektuak gauzatzeko gastuak ordaintzeko.

Bigarrena.– 2016ko abenduaren 16ko Ebazpenean ezarritako aldian, Kontsumobiden jaso ziren erakunde hauek –dagozkien zenbatekoekin– eginiko laguntza-eskaerak, aipatutako ebazpenari helduta:

	EKE	EHKB	ACUV/EKA
1. lerroa: Funtzionamendua	106.400	106.373	110.000
2. lerroa: Laguntza juridikoa	50.000	41.181	50.000
3. lerroa: Proiektuak	10.000	8.058	10.000
4. lerroa: Teknologia-berrikuntzako proiektuak	14.500	5.590	15.000

Hirugarrena.– Kontsumobideko zuzendariaren 2017ko ekainaren 14ko Ebazpenaren bidez, diru-laguntza hauek eman ziren:

Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa – EKE.

1. lerroa: Funtzionamendua		63.542,08
2. lerroa: Laguntza juridikoa		6.385,00
3. lerroa: Kontsumo-proiektuak		5.600,00
	PR 1 Elikadura-joerei buruzko azterketa: produktu ekologikoak	3.500,00
	PR3 Kontsumitzaileen erosketa-ohituretan eragiten duten adierazleak	2.100,00
4. lerroa: Berrikuntza teknologikoko proiektuak		14.500,00
	Webaren modernizazioa	14.500,00
Guztira		90.027,08

Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna (EHKB).

1. lerroa: Funtzionamendua		79.919,92
2. lerroa: Laguntza juridikoa		22.344,81
3. lerroa: Kontsumo-proiektuak		4.598,00
	PR2 Banku-komisioak; erakundeen arteko azterketa konparatiboa	4.598,00
4. lerroa: Teknologia-berrikuntzako proiektuak.		5.590,00
	Weba berritzea	5.590,00
Guztira		112.452,73

Euskal Kontsumitzaileen Alkartea – ACUV/EKA.

1. lerroa: Funtzionamendua		102.453,48
2. lerroa: Laguntza juridikoa		44.752,52
3. lerroa: Kontsumo-proiektuak		2.380,00
	PR 1 Goi-mailako prestakuntza; kontsumo-zuzenbidea	2.380,00
4. lerroa: Berrikuntza teknologikoko proiektuak		15.000,00
	Online marketin-plana	15.000,00
Guztira		164.586,00

Laugarrena.– 2016ko abenduaren 16ko Ebazpenaren 16. artikuluaren arabera, diru-laguntzaren % 75 aldeko ebazpena eman zenean ordaindu zen, eta gainerako % 25a gastua justifikatzean ordaintzeko geratu zen.

Bosgarrena.– Erakunde onuradunek eman zaien diru-laguntza justifikatu dute, eta desbideratze hauek gertatu dira justifikazioaren eta diru-laguntza kalkulatzeko onartutako aurrekontuaren artean.

Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa – EKE.

	Onartutako puntua	Justifikazioa	Desbideratzea
2. lerroa: Laguntza juridikoa	50.000	19.000	*% 62*
4. lerroa: Teknologia-berrikuntzako proiektuak.	14.500	0	*% 100*

Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna (EHKB).

	Onartutako puntua	Justifikazioa	Desbideratzea
2. lerroa: Laguntza juridikoa	41.181	27.294,25	*% 33,72*

Euskal Kontsumitzaileen Alkartea – ACUV/EKA.

	Onartutako puntua	Justifikazioa	Desbideratzea
3. lerroa: Proiektuak			
PR 1 Goi-mailako prestakuntza; kontsumo-zuzenbidea	3.400	0	*% 100*

Seigarrena.– 2016ko abenduaren 17ko Ebazpenaren 17. artikuluak ezartzen duenez, gastuen justifikazioan % 25etik gorako desbideratzea gertatzen bada, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo da, diru-laguntzaren bidez lortu nahi ziren helburu guztiak bete direla egiaztatzen denean izan ezik. Kasu horretan, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa gutxitu egingo da, eta benetan gastatutako diru-zenbatekoari aplikatuko zaio diru-laguntza kalkulatzeko aurrekontuari aplikatu zitzaion ehunekoa.

Zazpigarrena.– Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoak (EKE), Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasunak (EHKB) eta Euskal Kontsumitzaileen Alkarteak (ACUV/EKA) bete egin dituzte diru-laguntza emateko arrazoi izan ziren helburu guztiak.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita eta oro har zein bereziki aplikagarri diren gainerakoak oinarri hartuta, honen bidez, Kontsumobideko zuzendariak honako hau

XEDATZEN DU:

1.– Aldatzea Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoari (EKE), Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasunari (EHKB) eta Euskal Kontsumitzaileen Alkarteari (ACUV/EKA) 2017ko ekainaren 14ko Ebazpenaren bidez eman zitzaizkien zenbatekoak, kontzeptu eta kopuru hauetan:

EUSKADIKO KONTSUMITZAILEEN ELKARGOA – EKE

	Diru-laguntza
2. lerroa: Laguntza juridikoa	2.426,30
4. lerroa: Berrikuntza teknologikorako proiektuak	0

EUSKAL HERRIKO KONTSUMITZAILEEN BATASUNA (EHKB)

	Diru-laguntza
2. lerroa: Laguntza juridikoa	14.809,86

EUSKAL KONTSUMITZAILEEN ALKARTEA – ACUV/EKA

	Diru-laguntza
3. lerroa: Proiektuak	0
PR 1 Goi-mailako prestakuntza; kontsumo-zuzenbidea	0

2.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

3.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 18a.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendaria,
NORA ABETE GARCÍA.